



DEBAko UDALA

2016SPLE0003

3. BILERA: EZOHIKOA 2016-03-02

Udalbatzarraren bilkura-akta

Bilkura: arauz deitutako ezohizko Udalbatzarra

Zenbatgarrena: hirugarrena

Eguna: 2016/03/02

Hasiera-ordua: 19:30

Amaiera-ordua: 20:40

Onarpen-eguna: 2016/03/31

Bertaratutako zinegotzi hautatuak:

PEDRO M^a BENGOETXEA LOIOLA

AITOR SALEGI IRURETA

ANE MIREN EGIDAZU ELOSUA

M^a LUISA ALBIZU BEITIA

IÑAKI ESNAOLA OSTOLAZA

MAIDER ZUBIKARAI BERISTAIN

AIMAR LASA URKIRI

MIREN ELISABETH URTEAGA IÑARRA

ITZIAR IRIZAR BERISTAIN

JOSE LUIS ALBIZU BERISTAIN

CRISTOBAL DEL CORTE LAPACHERIE

IÑIGO CAMBRONERO ALKORTA

ANA BELEN HIDALGO CORRAL, idazkaria

Azaldu ez diren zinegotzi hautatuak:

UNAI LEKUBE ARANBERRI

Bertaratzeak eta irteerak

Gora-beherak



DEBAko UDALA

Aztergaiak:

1. 2016ko urterako Udal aurrekontua eta Aurrekontuaren Exekuziorako Udal Araua onartzeko proposamena. Hasierako onespina.
2. 2016ko Plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda onartzeko proposamena. Hasierako onespina.
3. Eskariak eta galderak.



DEBAko UDALA

Esan-eginak eta erabakiak

1. 2016 urterako Udal Aurrekontua eta Aurrekontuaren Exekuziorako Udal Arauen aldaketa, plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda onartzeko proposamena. Hasierako onespena.

Txostena

Udal aurrekontuak eta Aurrekontuaren Exekuziorako Udal Araua, onartzeko edo aldatzeko jarraitu behar den prozedurari dagokionez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Araua da aplikagarria.

Aurrekontuaren Exekuziorako Udal Arauari dagokionez, amaierako bigarren xedapenari jarraiki “egokitzen diren aurrekontuen gauzatze araei Foru Arau honek 15. 17. eta 18. artikuluetan aipatutako publizitate, erreklamazio eta errekursoei buruzko arauak aplikatuko zaizkie”.

Udalbatzaren akordioaren hasierako onespeneren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren jendaurrera azalduko da hamabost egunetan. Epealdi horretan interesatuek aztertu eta udalbatzari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote. Epealdi horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabakia behin betikoz onetsizat joko dira. Bestela, udalbatzak hilabeteko epea izango du erreklamazioak ebazteko.

Behin betiko onetsita, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira udal aurrekontuaren laburpena eta Aurrekontuaren Exekuziorako Udal Arauaren testua.

Udal aurrekontuaren laburpena eta Aurrekontuaren Exekuziorako Udal Arauaren kopia bat bidaliko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari, hark administrazio eskudunei bidaliko dielarik.


Hasierako onspenak, gehiengo soila eskatzen du.

Iritziak eta galde erantzunak

Alkateak testu bat irakurri du eta azalpenak eman ditu aurrekontuak prestatzeko emandako urratsei buruz, egindako bilerei eta batzorde-bilerei buruz, eta emandako informazioari buruz. Esan du, bilerak egin, egin direla eta informazioa eman, eman dela, eta beste kontu bat dela ados ez egotea aurrekontuen edukiarekin.

Iñaki Esnaola zinegotziak power point aurkezpen bateaz baliatu da 2015 eta 2016 urteetako aurrekontuak alderatzeko.

Maider Zubikarai zinegotziak esan du, beraiek ezezko botoa emango dutela eta horretarako bi arrazoi daudela. Batetik, partidekin ez daude ados. Pozten da aurrekontua handiagoa delako Udalen Fondo Foralak gora egin baitu, aurreko legegintzaldian GFaren polikari esker. Ados ez



DEBAko UDALA

dauden hainbat partidei egin diete aipamena: poligonoa, elkartasuna eta %0,7 a, inbertsioetarako 6 €ko partidak, festak, auditoria urtero egitea, trofeoak eta sariak ... Aurrekontua kudeaketa tresna bat da eta gobernu baten asmoa ez da jasotzen 6 euroko partiden bitartez.

Bestetik, aurrekontua egiteko erarekin eta partehartzearekin ez daude ados. Proposamen bat egin zitzaizen eta beraiek galderak egin zituzten arren erantzunik ez dute jaso. Batzorde batzuetan ez da bilerarik egin, eta ondorioz, ez da egon horien irizpenik, Ogasuna Batzordearen irizpenik gabe aldaketa batzuetan egin dira, partida askoren informaziorik ez da eman, partehartzea batzordearen berri ez daukate... Gaineratu du, beraiek ekarpenak egiteko eta kooperatzeko prest daudela.

El Alcalde ha respondido que ha habido reuniones suficientes, que EH Bildu no ha contestado al plan de acción que se les presentó y que no cabe hablar de participación cuando se han enterado por la prensa de la intención de voto negativo.

Ane Egidazu zinegotziak hitza hartu du eta azalpenak emateko erabili duen gidoia idazkariari eman dio aktan islatu dezan.

“Hezkuntza, Euskara, eta Kulturako aurrekontuetan, Musika Eskolako eta Arte Eskolako Patronatuak sartuta daude. Hauek aurrekontu osoaren (335.671 +83.267= 418.937) %51,7 eramaten dutela. 2016 aurrekontuetan, Patronatu bietan, jeitsiera egon da %5,1 eta %10,8. Aurrekontu orokorrei bi partida hauek kentzen badizkiegu Batzorde honek %1,48ko jeitsiera izan duela esan dezakegu.

Hezkuntza, Euskara, eta Kulturako aurrekontuetan, liburutegirako liburuen erosketarako egon den murrizketaren inguruan ondorengo azalpenak eman nahi ditut:

1. Liburutegiko partidak 2015eko aurrekontuekin konparatuz, 8.000 €ko jeitsiera izan duela.

2. Erabaki hau hartzeko, kontuan izan dugula 2015ean gastatutako dirua (10.780€); guztira 1.222 produktu: liburu, ipuin, CD eta pelikula. Deba bezalako udalerrietan liburuen erosketetarako ematen den dirua. Baina urtean zehar beharrik suertatuko balitz aurre egingo zaio.

3. Murrizketa honen berri liburutegiko arduradunak eta udaletxea osatzen dugun alderdi politiko guztiok genuela.

4. Kontzeptu honen inguruan soilik liburuzainak egin dituela proposamenak eta otsailaren 22an egindako batzordean bera izan zela desadostasuna azaldu zuen bakarra.

5. “¿Más toros menos libros?” adierazpenaren inguruan zera argitu nahi dut: liburutegiko kontuak 8.000€ galdu baditu, euskararen sustapenak 10.000€ irabazi duela, hezkuntzak 2.000€ eta Ondareak 6.000€.

6. Argi utzi nahi dut 2016ko aurrekontuek izan duten prozesua hobetu daitekeela, baina izan dugun jokabidea argia eta garbia izan da.”

Azkenik, aurrekontuetan aurreikusitako trofeo eta sariak zerrendatu eta azaldu ditu.

Aimar Lasa zinegotziak esan du, beraiek batzordean eskariak egin zituztela, eta denboraz, berandu ibili dela udal gobernu. Gaineratu du, arloko teknikariak esan zuela, berari agindu ziotela dirukonturik ez eramateko batzordearen bilerara.

Aurrekontuak aurkezteko formatua ondo egon dela esan du, bisuala izan baita, baina gobernuak aurkeztutako urteen alderaketa tranposoa eta ez objektiboa izan dela. Aurrekontuen aurkezpena interpretazio interesatu bat izan dela esan du.



DEBAko UDALA

En relación a la calificación de la presentación de los presupuestos como “*interpretación interesada*”, El Alcalde le ha respondido que la presentación está pensada para que la gente que viene a la sesión del pleno tenga una imagen visual de los presupuestos y a ese respecto, ha añadido, que del mismo modo que ellos han hecho referencia a que la buena gestión de la DFG ha supuesto un incremento de la cuantía presupuestaria él también puede entender que la gestión de residuos ha supuesto una pérdida de dinero en el presupuesto.

Ane Egidazuk esan du, dana hobetu daitekeela eta datorren urtean lehenago hasiko direla aurrekontuak lantzen. Denon partaidetza argia eta garbia izan behar duela eta berak behintzat ez ziola agindu teknikariari dirukontuak ez proposatzeko batzordean.

Alkateak horren harira esan du berak ere ez ziola horrelako agindurik eman.

Cristobal del Corte zinegotziak esan du, beraiek aurrekontuen onarpenaren alde bozkatuko dutela. Partehartzea Batzordearen inguruan esan du, Unai Lekube zinegotzia batzorde horren batzordeburua dela eta gaixorik dagoela, baina bilera egiteko asmoa duela eta GFAREN arau berriaren zain dagoela.


Bozketa arrunta egin ondoren, idazkariak honako emaitza hau jaso dela informatu du:

BOZKETA

◇ Bozketan parte hartu duten zinegotziak:	12
◇ Aldeko botoak:	7
Aldeko boto-emaileak: PEDRO M ^a BENGOTXEA, AITOR SALEGI, ANE MIREN EGUIDAZU, M ^a LUISA ALBIZU, IÑAKI ESNAOLA, Debarren Ahotza taldeko Alkate eta zinegotziak.	
◇ CRISTOBAL DEL CORTE, IÑIGO CAMBRONERO, EAJ-PNVko zinegotziak.	
◇ Aurkako botoak:	5
◇ Aurkako boto-emaileak: MAIDER ZUBICARAY, AIMAR LASA, ITZIAR IRIZAR, JOSE LUIS ALBIZU, MIREN ELISABETH URTEAGA, EH Bilduko zinegotziak.	
◇ Abstentzioak:	0
◇ Emaitza: UDAL PROPOSAMENA ONARTZEA	

Erabakia.

Udalbatzarra osatzen duten hamahiru zinegotzietatik hamabi bilkuran direla, Udalbatzarrak ondoko erabakia hartu du goian adierazitako gehiengoarekin:



DEBAko UDALA

Lehenengo.- 2016 urteko Aurrekontuei eta Aurrekontu Orokorra betetzeko Udal Arauari, hasierako onespena ematea.

Bigarrena.- Erabaki hau argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan jartzea, jendaurreko informazio epea zabaltzen dela guztiei jakinarazteko. Iragarkia argitaratu eta hamabost egunean interesatuek erreklamazioak aurkezteko aukera izango dute.

Aipatu epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-betiko onartutzat joko da; hala ez izatekotan, Udalbatzarrak hilabeteko epea izango du erreklamazioak ebazteko. Behin-betikoz onartutakoa, GAO n argitaratuko da.

Hirugarren.- Behin-betikoz onartutako Aurrekontuaren laburpena eta Aurrekontu Orokorra betetzeko Udal Arauaren kopia Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea.

2. 2015 urteko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda onartzeko proposamena. Hasierako onspena.

Txostena

Plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda onartzeko edo aldatzeko jarraitu behar den prozedurari dagokionez, Udalbatzaren akordioaren hasierako onspenaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren jendaurrera azalduko da hamabost egunetan. Epealdi horretan interesatuek aztertu eta udalbatzari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote. Epealdi horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabakia behin betikoz onetsizat joko dira. Bestela, udalbatzak hilabeteko epea izango du erreklamazioak ebazteko.

Behin betiko onetsita, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda.

Hasierako onspenak, gehiengo soila eskatzen du.

Erabakia.

Aurrekarien berri izanda, Udalbatzarrak osatzen duten hamahiru zinegotzietatik hamabi bilkuran direla, Udalbatzarrak ahobatez hartu du ondoko erabakia:

Lehenengo.- 2016 urteko Plantilla Organikoari eta Lanpostuen Zerrendari hasierako onspena ematea.

Bigarrena.- Erabaki hau argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan jartzea, jendaurreko informazio epea zabaltzen dela guztiei jakinarazteko. Iragarkia argitaratu eta hamabost egunean interesatuek erreklamazioak aurkezteko aukera izango dute.



DEBAko UDALA

Aipatu epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-betiko onartutzat joko da; hala ez izatekotan, Udalbatzarrak hilabeteko epea izango du erreklamazioak ebazteko. Behin-betiko onartutakoa, GAO n argitaratuko da.

Besterik gabe, Alkate-Udalburuak amaitutzat eman du bilera, eta, eztabaidatutakoa nahiz erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizen honek, hori guztia idatzi eta ziurtatu egin dut.

Deban, 2016ko martxoaren 2a

IDAZKARIA

